

# FUNTSEZKO ELKARTEAK

Gure proiektuak funtziona dezan eta aurrera eramateko bazkideak eta hornitzaileak behar ditugu, guztien artean koordinatzeko jarduera desberdinak egiteko orduan, arriskuak murrizteko, baliabideak eskuratzeko eta plangintza egiteko orduan.

Gurekin elkarlanean aritzen diren elkarteak hauek dira: Down Araba, Apdema, Aspace, TEA Araba eta ONCE. Hauek izan dira orain arte gurekin parte hartzera animatu diren elkarteak baina beste elkarte batzuekin ere elkarlanean aritzeko prest gaude haiek nahi izanez gero.

Guretzako garrantzitsua da elkarte hauen parte hartzea, haiek arduratuko direlako erabiltzaileei edo haien familiei gure programaren berri ematen, eta beste pertsona batzuei ere zabalduko diete informazioa eta informazioa eskuragarri izango dute nahi duten bakoitzean. Haiek ere ekintzak egiteko baliabideak eta materialak lortzen lagunduko digute, eskuragarritasuna zaila dugun bakoitzean. Horrez gain, pauta batzuk emango dizkigute erabiltzaileekin jarduteko orduan.

Amaitzeko, gure zereginak hauek izango dira:  
Aitzol: Elkarteak eta sozioak erakartzen dituena  
Ane: Webgunea eramaten duena  
Iñigo: Administratzailea  
Ainhoa: Kontratatzailea

\*Bakoitzaren zereginaz aparte, erabiltzaileekin eta kontratatutako begiraleekin egongo gara parte hartzen.

